

APM/1007/2017 Agindua, urriaren 10ekoa,  
hondeatutako material naturalak betelanetan eta  
jatorri-obretatik kanpoko beste obra batzuetan  
erabiltzeko balorizazio-arau orokorrei buruzkoa

Ohiko galderak



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

APM/1007/2017 Agindua, urriaren 10ekoa,  
hondeatutako material naturalak betelanetan  
eta jatorri-obretatik kanpoko beste obra  
batzuetan erabiltzeko balorizazio-arau  
orokorreari buruzkoa

Ohiko galderak

Data	2018ko urria
Bertsioa	1.1
Jabea	Eusko Jaurlaritza.
BOE	<a href="#">APM/1007/2017</a>

## Eduki-taula

<b>ZEIN DA AGINDUAREN XEDEA? .....</b>	<b>3</b>
<b>ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE ALDEZ AURRETIK HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALEN BALORIZATZAILEEK BAIMENETIK SALBUETSITA GERATZEKO, ETA NOLA EGIAZTATZEN DIRA HORIEK EAEN? .....</b>	<b>3</b>
<b>AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA EGIN OSTEAN, BALORIZATZAILEAK BA AL DU EGITEN DUEN JARDUERAREN INFORMAZIOA EMATEKO BESTE OBLIGAZIORIK? .</b>	<b>4</b>
<b>LEGEZKO BETEBEHARRIK AL DAGO HONDAKINEN ETA KUTSATUTAKO LURZORUEN LEGEAREKIN (UZTAILAREN 28KO 22/2011) ETA ESTATUKO LURRALDEAREN BARNEKO HONDAKINEN LEKUALDAKETA ARAUTZEN DUEN ERREGE DEKRETUAREKIN (MARTXOAREN 13KO 180/2015) LOTUTA? .....</b>	<b>4</b>
<b>ZERTAN BALORIZA DAITEZKE JATORRIA BESTE OBRA BATEAN DUTEN HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALAK BETELANETAN ETA OBRETAN? .....</b>	<b>5</b>
<b>ZER OBRA ETA BETELANETAN BALORIZA DAITEZKE BESTE OBRA BATZUETAN JATORRIA DUEN HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALAK? .....</b>	<b>5</b>
<b>ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE BETELANEK ETA OBREK, HORIETAN JATORRIA BESTE OBRA BATZUETAN DUTEN HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALAK BALORIZATZEKO? .....</b>	<b>5</b>
<b>ZER OBRATAN IZAN DEZAKETE JATORRIA BESTE OBRA EDO BETELAN BATEAN ERABILI NAHI DIREN HONDEATUTAKO MATERIAL NATURELEK? .....</b>	<b>5</b>
<b>ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE BETELANETAN EDO BESTE OBRA BATZUETAN BALORIZATU NAHI DIREN HONDEATUTAKO MATERIALEK ETA NOLA EGIAZTATZEN DIRA? .....</b>	<b>6</b>
<b>HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALEN EDOZER KANTITATE BALORIZA DAITEKE? NOLA JUSTIFIKATZEN DA? .....</b>	<b>7</b>
<b>ERAGINA AL DU HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALAK BALORIZATZEKO APM/1007/2017, URRIAREN 10EKO AGINDUAK INDARREAN SARTU ZENEAN PROIEKTUA ONARTUTA EDO AURKEZTUTA ZUTEN BETELAN EDO OBRETAKO OPERAZIOETAN? .....</b>	<b>7</b>
<b>ZER GERATZEN DA BETELAN EDO OBRA BATEK ONARTUTAKO EDO AURKEZTUTAKO PROIEKTUA BADU BAINA 2019KO URTARRILAREN 2AREN ONDOREN AMAITUKO DELA AURREIKUSTEN BADA? .....</b>	<b>8</b>

ERAGITEN AL DIE APM/1007/2017 AGINDUAK EUSKADIN OTSAILAREN 24KO 49/2009 DEKREUAREN ARABERA EGITEN DIREN BETELANEI (DEKREU HORREK HONDAKINAK HONDAKINDEGIETAN BILTEGIRATUTA ETA BETELANAK EGINDA EZABATZEA ARAUTZEN DU)? .....	8
ERAGITEN AL DIE APM/1007/2017 AGINDUAK EUSKADIN OTSAILAREN 24KO 49/2009 DEKREUAREN ARABERA EGINGO DIREN BETELAN BERRIEI (DEKREU HORREK HONDAKINAK HONDAKINDEGIETAN BILTEGIRATUTA ETA BETELANAK EGINDA EZABATZEA ARAUTZEN DU)? .....	8
ZER GERTATZEN DA BALORIZAZIO-OPERAZIOA BURUTUTAKOAN HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALEN HONDARRIK BADA? .....	9
ZER GERTATZEN DA BI URTE IGARO DIRENEAN BILTEGIRATUTA DAUDEN HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALEN BALORIZAZIO-OPERAZIOA GAUZATU EZ BADA? .....	9
ZER GERTATZEN DA HONDEATUTAKO MATERIAL NATURALEN HARTZAILEA MEATEGI BATEN LEHENERATZEA BADA? .....	9

## Zein da Aginduaren xedea?

Hondakinen kudeatzailearen **baimena eskatzeko betebeharretik salbuestea** gauzatzen ari diren betelanean eta obretan beste obra batzuetan jatorria duten lur eta arroka naturalak erabili nahi dituzten pertsona fisiko eta juridikoak.

Horretarako, **baldintza batzuk ezartzen dira**, hondeatutako material naturalen balorizatzaileek, ekoizleek eta hasierako jabeek eta materialek berek bete beharrekoak.

**Baldintza horiek betetzen ez badira**, balorizatzaileek ezin izango dute baimenaren salbuespena baliatu, eta beste obra batzuetan jatorria duten hondeatutako material naturalen balorizaziorako beharrezkoa izango litzateke hondakinak kudeatzeko **baimena eskuratzea**.

*Agindu hori baliatzeak ez du eskatzailea salbuesten aplikatzekoak izan litezkeen sektoreko araudien arabera eska dakizkiokeen gainerako betekizun eta izapide administratiboak betetzetik.*

## Zer baldintza bete behar dituzte aldez aurretik hondeatutako material naturalen balorizatzaileek baimenetik salbuetsita geratzeko, eta nola egiaztatzen dira horiek EAEn?

**Aurretzeko komunikazioa aurkeztea** beste obra batzuetan hondeatutako material naturalak balorizatuz egin nahi den betelaneke operazio edo obra bakoitza hasi aurretik, eta honako dokumentazio hau eranstea komunikazio horri:

- I. eranskineko inprimakia
- Obraren kokalekuaren irudiaren dokumentua, Geoeuskadirena, lurzoruen geruza erakusten duena. [[Ikusi azalpen-dokumentua](#)]
- Balorizazioa erabiliko den obraren autorizazio, baimen edo lizentziaren kopia.
- Ekoizleak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena.
- Jatorrizko obraren kokalekuaren irudiaren dokumentua, Geoeuskadirena, lurzoruen geruza erakusten duena. [[Ikusi azalpen-dokumentua](#)]
- Behin-behineko biltegitratzea beharrezkoa bada amaierako obran behin-behinean biltegitratzearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dugu

*Komunikazio hori aurkezteko Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko **BALORIZAZIO-LANA HASI AURREKO BALORIZAZIO-KOMUNIKAZIOA** izeneko prozedura elektronikoa erabiliko dugu. Erantsi beharreko formularioak ere bertan daude.*

## Aurretiazko komunikazioa egin ostean, balorizatzaileak ba al du egiten duen jardueraren informazioa emateko beste obligaziorik?

Bai, balorizatzaileak honako hauen inguruko informazioa eta dokumentazioa emateko betebeharra du:

1. Hasierako ekoizle **berri** bakoitzeko, eta jatorri bakoitzeko hondakinak jaso aurretik, hasierako ekoizleak emandako informazio hau aurkeztu beharko dute:
  - a. Ekoizleak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena
  - b. Jatorrizko obraren kokalekuaren irudiaren dokumentua, Geoeuskadirena, lurzoruen geruza erakusten duena. [[Ikusi azalpen-dokumentua](#)]
  - c. Jatorri bakoitzeko material guztiak jasotzen direnean, balorizatutako materialen laburpena
2. Materialak balorizatu aurretik beharrezkoa bada behin-behinean biltegitratzea, informazio hau aurkeztu beharko dute:
  - a. Amaierako obran behin-behinean biltegitratzearen erantzukizunpeko adierazpena
3. Balorizazio-lanak amaitu eta hilabeteko epean, beranduenez ere, informazio hau aurkeztu beharko dute:
  - a. Materialen balorizazio-jardueraren laburpena

*Dokumentu horiek aurkezteko **MATERIAL NATURALAK BALORIZATZEAREN JARRAIPENA ETA AMAIERA** izeneko prozedura elektronikoa erabiliko dugu. Erantsi beharreko formularioak ere bertan daude. Entregatutako dokumentu bakoitzeko alta emango zaio prozedura bati, eta balorizazio-jarduera hasi aurreko komunikazioarekin lotuko da kasu guztietan. Jadanik entregatutako dokumentua eranstea aukera baliatuko da espedienteak lotzeko.*

## Legezko betebeharririk al dago hondakinen eta kutsatutako lurzoruen Legearekin (uztailaren 28ko 22/2011) eta Estatuko lurraldearen barneko hondakinen lekualdaketa arautzen duen Errege Dekretuarekin (martxoaren 13ko 180/2015) lotuta?

Bai, hauexek:

- a) Jatorrizko obratik amaierakora materialak lekualdatzean, legez hondakin ez-arriskutsuak direnez, Estatuko lurraldearen barneko hondakinen lekualdaketa arautzen duen Errege Dekretua (martxoaren 13ko 180/2015) bete beharko da.

Zehazkiago, jatorrizko obran ezinbestekoa den tratamendu-kontratua sinatuko da, lekualdaketa guztietan identifikazio-dokumentua erabiliko da, edo Araudi horren I. eranskineko informazioa jasotzen duen horren ordezkoko dokumentua eta, azkenik, hondakinaren igorleak, garraiolariak eta hartzaileak eguneratuta izan beharko dute artxibo kronologikoa.

- b) Aurreko atalean aipatutako dokumentazio guztia agintaritza eskudunen esku mantenduko da hiru urtez.
- c) Hondeatutako lurzoruen eta material arriskutsuen ekoizleak edo hasierako jabeak urtean hondakin ez-arriskutsu horien (EHZ 17 05 04) 1.000 tona baino gehiago sortzen baditu, hondakin ez-arriskutsuaren ekoizlearen komunikazioa aurkeztu beharko du EAEko ingurumen-organon.

## Zertan baloriza daitezke jatorria beste obra batean duten hondeatutako material naturalak betelanetan eta obretan?

Baimendutako obra-proiektuan jasotako **beste material batzuen ordezkoko gisa, hondakinak ez badira, funtzio berbera betez.**

## Zer obra eta betelanetan baloriza daitezke beste obra batzuetan jatorria duen hondeatutako material naturalak?

**Eraikuntza lanetan**, baldin eta bertan egitekoak diren obrak (urbanizazioa edo antzekoak) egoera hobean egiteko asmoz, leku horretako gune edo zulo jakinak betetzea badira lan horien funtsa, lubetak, portuko betelanak eta antzekoak barne.

**Betelanetan**, baldin eta horien xedea bada hondakin egokiak erabiltzea erauzketa-industriak hondatutako lursailak onera ekartzeko, narriatutako espazioak berroneratzeko eta bideak edo abelbideak egokitzeko.

## Zer baldintza bete behar dituzte betelanek eta obrek, horietan jatorria beste obra batzuetan duten hondeatutako material naturalak balorizatzeko?

Dagokien **autorizazioa, baimena edo obra-lizentzia izan behar dute**, aplikatu beharreko legeriaren arabera.

## Zer obratan izan dezakete jatorria beste obra edo betelan batean erabili nahi diren hondeatutako material naturalek?

**Ondasun higiezin bat** (esaterako, eraikin bat, errepide bat, portu bat, aireportu bat, trenbide bat, kanal bat, urtegi bat, kirol- edo aisialdi-instalazio bat) birgaitu, konpondu, erreformatu



edo eraistea dakarten **eraikuntza- edo eraiste-obretan**, bai eta ingeniaritza zibileko beste edozein proiektu baliokidetan.

**Lurrazalaren** edo lurpearen forma edo substantzia **aldatzen duten** eraikuntza- edo eraiste-**obretan** (esaterako, indusketak, injekzioak, urbanizazioak edo baliokideak), **erauzketa-industrietako hondakinen** kudeaketari buruzko 2006/21/EE zuzentaraua aplikatu behar duten jarduerak **izan ezik**.

## Zer baldintza bete behar dituzte betelanetan edo beste obra batzuetan balorizatu nahi diren hondeatutako materialek eta nola egiaztatzen dira?

Ezaugarri kimikoei dagokienez, gizakiak eragindako alteraziorik gabeko lurzoruez eta EHZ 17 05 04 kodean sailkatutako hondeatutako beste material natural batzuez (esaterako, **lurra, buztina, lokatza, hondarra, legarra edo harria**) **osatuak egotea**. Baldintza hori betetzen dela egiaztatzeko, materialen egokitasun-adierazpen bat aurkez dezakete, balorizatu nahi diren lurzoruen jatorrizko kokalekuaren hondeatu aurreko argazkiak erantsita. Segurtasun handiagoz egiaztatzea beharrezkoa bada, lurzoruen analisi agronomiko bat gehitu, materia organiko aktiboaren presentzia frogatzeko.

**Ez egotea material natural horiez bestelako material edo objektuekin nahasita** (esaterako, hormigoia, zeramika, metalak, plastikoak, oihalak, egurrak, zepak, material erregogorrek, urtzeko hondarrak, etab.). Alderdi hori erabiliko diren hondeatutako material naturalak erakusten dituen dokumentazio grafikoaren bidez egiazta daiteke eta, xehetasun edo segurtasun handiagoa behar bada, hondeatutako material naturalak osatzen dituzten frakzioak identifikatu eta kuantifikatzen dituzten karakterizazio estandarizatuen bidez.

**Jatorria ez izatea lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazioetarako erabili diren lurzoruetan**, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko Legearen (ekainaren 25eko 4/2015) definizioen arabera. Horretarako, dokumentu honen 3.1.b) puntuan adierazi bezala, Geoeuskadiren bisorean eskuragarri dauden kokalekuen inbentarioko informazioa erabili behar da, eta jatorrizko obraren kokalekuaren irudi bat lortu, lurzoruen geruza ikusgarri duena, inguruabar hori egiaztatzeko.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioetarako erabili diren lurzoruetan **badute jatorria, gaikako hondeaketa-planaren baimena izatea**, lurzoru kutsatuen arloan eskumena duen organoak emandakoa, eta bertan **espresuki aipatzea** inbentarioko kokalekutik hondeatutako zer material natural **baloriza daitezkeen** Agindu honetan jasotako baldintzen arabera. Aurreko paragrafoan aipatutako irudia duen dokumentuan ebazpenaren data adierazi behar da, bai eta lurzoruen espedientearen erreferentzia ere. Zalantzarik balego eta beharrezkoa balitz, hondeatutako material naturalen nolakotasuna egiaztatu behar da, materialek A ebaluzioan (VIE-A) adierazitako balioa gainditzen ez dutela egiaztatzen duten proba analitikoak aurkeztuta.



**Hondeatutako material naturalek bete egin beharko dituzte** obraren edo betelanaren **baldintza teknikoan pleguan** material horientzat edo ordeztan dituztenentzat ezartzen diren betekizunak. Beharrezkoa balitz, hondeatutako hondakin naturalen hasierako ekoizleak edo hasierako jabeak inguruabar hori egiaztatu beharko du, materialak balorizatuko diren obran material horien erabilera arautzen duen pleguak edo arauak ezartzen dituen proba teknikoan emaitzak aurkeztuz.

*Gogorarazten dizuegu materialak erabiliko diren betelan edo obraren arduradunek betebeharra dela egiaztatzea balorizatuko dituzten hondeatutako material naturalek ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela.*

## Hondeatutako material naturalen edo zer kantitate baloriza daiteke? Nola justifikatzen da?

Hondeatutako gehieneko kantitatea **ez da izango jatorriko proiektuan justifikatua baino handiagoa**. Beharrezkoa bada material naturalen ekoizleak edo jabeak inguruabar hori justifikatu beharko du.

Beste obra batzuetan jatorria duten balorizatu beharreko hondeatutako material naturalen gehieneko kantitateak **ezingo du gainditu amaierako proiektuetan justifikatutakoa**. Beharrezkoa balitz, balorizatzaileak inguruabar hori justifikatu beharko du.

## Eragina al du hondeatutako material naturalak balorizatzeko APM/1007/2017, urriaren 10eko Aginduak indarrean sartu zenean proiektua onartuta edo aurkeztuta zuten betelan edo obretako operazioetan?

APM/1007/2017 Agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2017ko urriaren 21ean, eta 2018ko urtarrilaren 2an jarri zen indarrean.

Agindu hori ez zaie aplikatu behar 2018ko urtarrilaren 2an martxan dauden obra edo betelanetan, proiektua aurkeztu edo onartu badute, betiere jarduketa horiek 2019ko urtarrilaren 2a baino lehen amaitzen badira.

## Zer geratzen da betelan edo obra batek onartutako edo aurkeztutako proiektua badu baina 2019ko urtarrilaren 2aren ondoren amaituko dela aurreikusten bada?

Kasu horietan, obra APM/1007/2017 Aginduaren aplikazio-esparruaren barruan sartuko da obra, eta bertan jasotako betekizun guztiak bete beharko ditu.

## Eragiten al die APM/1007/2017 Aginduak Euskadin otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera egiten diren betelanei (Dekretu horrek hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen du)?

Aurreko apartatuan adierazitako obren kasuan bezala jokatuko da, hau da, 2018ko urtarrilaren 2an 49/2009 Dekretuaren arabera martxan dauden betelanei ez zaie Agindua aplikatuko, betiere 2019ko urtarrilaren 2a baino lehen amaitzen badira.

Alabaina, jarduerak martxan jarraitzen badu 2019ko urtarrilaren 2tik aurrera, une horretan aipatutako Aginduan ezarritako komunikazio-prozedura eta informazio-beharrak betetzera pasatuko da obra, eta beraz komunikazioak egiten eta beharrezko informazioa jakinarazten hasi beharko dira arduradunak, dokumentu honetan jada deskribatu dira prozedura hauek erabiliz:

- [BALORIZAZIO-LANA HASI AURREKO BALORIZAZIO-KOMUNIKAZIOA](#)
- [MATERIAL NATURALAK BALORIZATZEAREN JARRAIPENA ETA AMAIERA](#)

## Eragiten al die APM/1007/2017 Aginduak Euskadin otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera egingo diren betelan berriei (Dekretu horrek hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen du)?

Bai, betelan berriei bi araudiak aplikatuko zaizkie eta, ondorioz, araudi horietako bakoitzean zehaztutako betekizun guztiak bete beharko dituzte.

## Noiz arte luzatzen da hondeatutako material naturalen ekoizleen edo jabeen erantzukizuna?

Hondeatutako material naturalen balorizatzaile bati entregatzen badizkiote, material horiek arautzen dituen Aginduaren arabera, ekoizleen edo hasierako jabeen erantzukizuna materiala entregatzean amaitzen da, hartzaileak entrega horri dagokion identifikazio-dokumentuan (edo funtzio hori betetzen duen dokumentuan) dagokion atala sinatuz entrega onartzen duenean.

## Zer gertatzen da balorizazio-operazioa burututakoan hondeatutako material naturalen hondarrik badago?

Kasu horretan, hondeatutako material naturalen amaierako balorizatzailea material horien ekoizle edo jabe izatera pasako da, eta materialak erretiratu eta kudeatu beharko ditu, hondeatutako material naturalak balorizatzeko Aginduan figura horrentzat ezarri bezala, hau da:

- Erregistratutako erakunde edo enpresa bati entregatuz, Aginduaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (lurzoruen eta hondeatutako material naturalen BALORIZATZAILEA); edo
- Hondakin ez-arriskutsu gisa kudeatuz, uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarritakoari jarraikiz.
- Materialen entrega dudarik gabe dokumentatuz.

## Zer gertatzen da bi urte igaro direnean biltegiratuta dauden hondeatutako material naturalen balorizazio-operazioa gauzatu ez bada?

Biltegiratzea ez badago baimenduta hondakinen kudeaketaren esparruan, aplikatzekoa izango da uztailaren 28ko 22/2011 Legearen VII. tituluaren ezarritako zehapen-araubidea.

Horrez gain, ezar litekeen zehapenaren kalterik gabe, baldintzak bete ezin dituen hondeatutako material naturalen balorizatzaileak **eraldatutako egoera leheneratzeko** obligazioa izango du, bai eta eragindako kalte eta galeren ordaina pagatzeko ere, organo eskudunak erabakitakoaren arabera.

## Zer gertatzen da hondeatutako material naturalen hartzailea meategi baten leheneratzea bada?

Leheneratzeko plana meategien araudiaren esparruan baimendu bada, leheneratzeko planaren baimena nahikoa izango da obrak dagokion autorizazioa, baimena edo obra-lizentzia izan behar duela egiaztatzeko, indarreko araudiaren arabera.